





EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKAINA

2025						2026					
Uzt.	Abuzt.	Iraila	Urria	Azar.	Aben.	Urtar.	Otsai.	Mart.	Apir.	Mai.	Ekai.
103,0	102,7	103,1	103,8	107,6	104,2	109,3	104,1	100,6	99,7	99,2	99,0

EAEko ekonomiaren termometroak 99,0ko balioa izan zuen ekainean, eta hazkunde sendotik gertu mantendu zen. Eskariaren ikuspegitik, kontsumoak eta inbertsioak jarraitzen dute izaten jarduera gehien bultzatzen duten osagaiak; aldiz, kanpo arloaren ekarpenak negatiboa izaten jarraitzen du. Sektoreen ikuspegitik, industriak aurreko hilabeteekiko hobekuntza seinaleak eskaintzen ditu, ekipamenduko ondasunen portaeran oinarrituta, eta eraikuntzak tonu positiboa mantentzen du, nahiz eta urte hasieran ikusitakoa baino intentsitate txikiagoa izan. Bestalde, lan merkatuaren adierazleak zertxobait hobetu dira aurreko hilabeteekin alderatuta, eta zerbitzuen hazkundeari eusten jarraitzen dute, horiek baitira oraindik ere jarduera ekonomikoaren euskarri nagusia.



Oharra: EAEko ekonomiaren termometroaren egiteko hileko bakoitzaren lehen egunetan eskuragarri dagoen informazioa erabiltzen da.